

# ttüpi-ttapa

1995eko martxoak 2 • 153. zenbakia

Elkarrizketa

**Mariado ITURRALDE:**  
«Baserrian emakumea faltatzen  
denean, martxa galtzen da»

**HAIZE-ERROTAK LAISTER  
GURE MENDIETAN**



# Gida Komertziala

orain, **ttipi-ttapa** argitaratua

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala.
- ✓ Profesional, komertzio eta lan-tegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herri-ka eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guzitan kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa desberdinekin.

## Nola anuntziatu

Modu bat baino gehiago dago, bakoitza bere tarifarekin

### Letra beltzean.

Horrela, letra arruntean daudenetatik nabarmenduz.  
Adibidez... (Osiña eta Okane)

### HARATEGIAK

#### ARANTZA

OSIÑA  
Osiña Auzoa, 8 .....634188  
MACICIOR LARRALDE, F. Karrika Nagusia .....634114

#### BERA

BORDA - Patxi - Bidasoa, 16 .....630082/631406  
PRIETO IRAZOQUI, J. A. - Errotazar .....630088  
OKANE  
Kanttonberri, 4 .....630018  
PAGOLA - Altzateko Plaza, 28 .....630054  
PANDO ROJO, C. - Bidasoa, 71 .....630452

### Moduloetan sartuz.

Neurri eta prezio desberdinetakoak daude.  
Adibidez...

### ELEKTRIZISTAK

TXIMISTINDAR ANDUEZA (Modulo bat)

*Tximistindar*  
**J.M. Andueza**

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK  
Askain karrika, 12 - 4. Ezk.  
Faxa eta Tfnoa: 948 - 63 08 54 BERA

### DESINFEKZIOAK

BERA DESINFEKZIOAK (Orrialde erdia)

Baztan,  
Bortziriak,  
Leitzaldea,  
Malerreka  
eta  
Saraldeko

PROFESIONAL  
KOMERTZIO  
LANTEGI eta  
ZERBITZUAK




**DESINFEKZIOAK  
DESINSEKTIZAZIOAK  
DESARRATOITZEAK**

© 63 01 55 BERA

Zure inguru-  
klase guzitako in-sektuz  
(xomorro, zinaurre, armi-arma, kukuxu...)  
eta arratoi-xagutxo-  
z garbitu nahi  
baduzu, deitu!  
Gu arduratuko gara horretaz.

Eta orain, **Termita eta Polillen**  
kontrako tratamenduak ere  
egiten ditugu.



ESTABLEZIMENDU eta ZERBITZU PLAGIZIDEN ERREGISTRO OFIZIALA NA-144-T Zenbakiduna

Eskatu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88

## DATUAK

❖ Mariado Donamariako Igurin auzoako Utxunean bizi da.

❖ Bertze bi anairekin batera, baserrian esneko behiak dituzte; 127 azinda buru ttiki eta haundien artean.

❖ Berriki, EHNEko bertze emakumeekin batera, Zaragoza aldean ibilia da hango baserriko emakumeekin hartu emanean eta haien esperientzi eta bizipenak ezagutzen.

❖ Inportantzia haundia ematen dio emakumeak 'etxe-zulotik' ateratzeari.

TESTUA:  
JOXEMANUEL IRIGOIEN  
ARGAZKIA:  
KARMELE TOLOSA

## Mariado ITURRALDE: «Baserrian emakumea faltatzen bada, martxa galtzen da»

### OHARTZEN OTE DA GIZARTEA BASERRIAREN IRAUPENEAN EMAKUMEAK BETETZEN DUEN PAPERAZ?

Baserriko emakumeari lan pila egitea tokatu zaio beti. Eta ez hori bakarrik, adineko emakumeak baserriko lana bere egin beharren barnean ikusten du, bere obligazioa balitz bezala, eta gizonak ere, ez dio emakumeak egiten duen lanari aparteko balorerik ematen.

### ORDUAN, EMAKUMEAREN LANA EZ DA BALORATZEN?

Begira, nik zera ikusten dut; baserri batetik emakumea faltatzen denean baserriak ez du hain ongi segitzen. Faltatzen dena gizona baldin bada, normalean, emakumea kapaz da baserria aintzinerara ateratzeko. Niri hala iduritzen zait. Gizona ohituratua dago gibeltik emakumea edukitzera, baina bakarrik gelditzen denean, orduan ohartzen da haren faltaz.

### ORAIN SEKTOREA BERA KRISIAN DAGOELA, DIBERTSIFIKAZIOA AIPATZEN DA, ETA BARDIRUDI EMAKUMEAREN BIZKAR DAGOELA BASERRIA BIZIRIK

«Etxetik ateri eta gauza diferenteak ikusten dituen emakumeak, ikastaroetara joan eta bertze tokietako emakumeak nola jokatzen duten ikusten duenak... bere burua kapaz ikusten du gauzak egiteko.»



### MANTENTZEA?

Bai, hala iduri du.

### ETA ZURE USTEZ, ZER BEHAR DU EMAKUMEAK APOSTU HORI AINTZINERAT ERAMATEKO?

Nire ustez informazioa behar du jakiteko zertara jokatzen ahal den baserri hori aintzi-

nerat ateratzekotan. Gero formazioa behar du, gauzak nola egin behar diren ikasteko... eta gero laguntzak ere behar ditu, etxetik ateri eta gauzak ikusteko. Etxetik ateri eta gauza diferenteak ikusten dituen emakumeak, ikastaroetara joaten den emakumeak, bertze tokietako emakumeek nola jokatzen duten ikusten duen emakumeak... bere burua kapaz ikusten du gauzak egiteko. Bertzenaz, iduritzen zait hemen-

go emakumeak ez duela baloratzen baserriko lana, eta izaten ahal den lanik okerrena dela iduritzen zaiola. Nire ustez, baserrikoa bertze lan bat bezala da.

### HORTAZ, INPORTANTZIA HAUNDIA EMATEN DIOZU EMAKUMEAK ELKARTZEARI?


Bai, funtsezkoa da. Bertzenaz bakoitza gelditzen gara geure etxean geure problemekin eta hortxe itotzen gara. Bizitza soziala arras inportantea da.

# HAIZE-ERROTAK LAISTER AILEGATUKO DIRA GURE MENDIETARA

**Nafarroako Energia Hidroelektrikoak (EHN) Erreniegako (El Perdon) mendi gainean paratu zuen argi indarra sortzeko lehen haize parkea joan den abenduan. Hurrengo bortz urteetan, guztira berrehun haize-errotak izanen dituzten sei parke eraikitzeko asmoa du Nafarroako enpresa honek, osotara 16.000 milioi pezetako inbertsioa eginez. Errota horietatik batzuk gure eskualdeko mendietan kokatuko dituzte.**

TESTUA:  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIAK:  
KARMELE TOLOSA

«Honelako diru sarrera bat lortzea loteria tokatzea da gurea bezalako herri pobreentzat»



Artxiboa

**Rufino MARIEZKURRENA**  
Eratsungo alkatea

■ Zer mesede ekarriko dio herriari haize parke bat jartzeak?

□ Mesede haundia. Urtero ordainduko digute eta bertara joateko bideak mol-datzea ere beraien kontu izanen da. Guri urtero 3 milioi t'ardi emanen digute eta hortaz gain, segun zenbat energia sortzen den, arabera hartara diru portzentaia ere emanen dute. Nere us-tez urtean 4 bat milioi-tan ibiliko da.

■ Eta kalterik sortzen ahal du?


□ Ez, deus ere, larre hutsa baitago Iruñarri in-

hasiera batean, Leitza, Eratsun eta Ezkurrako mendi kaxkoetan jartzeko asmoa dago, eta proiektuaren berri emateko, Donamarian bildu ziren duela zenbait hilabete EHNko ordezkariak eta hiru herriotako alkateak. Ageri denez, Leitza aldean egindako azterketen ondotik, errota hauek ezartzeko inguru egokia dela egiaztatu zuten EHNkoek. Alkateek begi onez ikusi zuten proiektua, energia mota garbia, berrigarria eta akitzen ez dena izateaz gain, urtero

herriarendako diru sarrera garrantzitsua suposatuko delako. Eratsun eta Ezkurra bezalako herri ttikien kasuan, diru problema asko saneatzen dituzte eta bi herrietako alkateak, aurrera egiteko intenzioa agertu bidenabar, oso positiboki baloratu dute iniziatiba. *“Orain arte, urtea juxtu juxtu pasatzea zen herriotako helburua, eta diru honek, edozein inbertsio egiteko lasaitasuna ematen du”* adierazi du Pello Zestau Ezkurrako alkatea.

**ERROTA BAKOITZEKO BERREHUN MILA PEZETA**

Lur eremua uzteagatik urtero diru bat hartuko dute. Errota bakoitzeko 200.000 pezeta fijoak dira, eta horretaz gain, lortzen den potentziaren arabera sari bat. Urteak urtera tarifa elektrikoarekin batera igoko da kuota hau. Kalkuluak egin ondotik, hiru milioi t'ardi jasoko ditu urtero Eratsunek, lau t'ardi Leitza eta bortz t'ardi inguru Ezkurrak. *“Gainera, kontrata sinatzearen truke milioi bana aurreratu zigun enpresak”* aipatu du Rufino Mariezkurrena, Eratsungo alkatea. Hori bai, hurrengo 65 urtetan EHNren eskuetan egonen dira lur horiek. Noizko jarriko dituzten ez dago garbi oraindik eta Donamarian izandako bileran ez omen zen zehaztu. *“Ez dago jakiterik, bainan bileran esandakoaren arabera lehenik Leitzaokoak jarriko di-*



LEITZA, EZKURRA ETA ERATSUN INGURUKO MENDIAK EDERKI ITXURALDATUKO DIRA HAIZE ERROTAN OSATUTAKO 'PARKE EOLIKOAK' JARTZEN DITUZTENEAN

tuztela uste dut eta gero Ezkurra eta Eratsungoak", Ezkurrako alkateak azaldu duenez. Eratsungo alkatearen ustez ere "kontua luze joanen da, izan ere errota bakoitzak 80 milioi pezeta gostako da eta diru hori lortu ondotik hasi nahi dute lanean".

**KALTE EKOLOGIKOAK IKUSTEKO DAUDE**

Sortzen ahal diren kalteak ere ez dira atzendu behar ordea. Alde batetik, tresna hauek sortzen duten soina eta hegaztiak kolpatzeko eta hiltzeko arriskua aipatzen dute Nafarroako talde ekologistek. Gurelur taldea adibidez, haize parkeen aldekoa da, baina neurritz eginez gero. Talde ekologista honek komunikabideetan plazaratu duenez, "EHNk ez du parkeak ezarri nahi dituen lekuetan ingurugiroari buruzko

inguruan ehiza postu batzuk badaude, baina ikusi arte ezin da esan nolako kaltea egingo

duen. Nere ustez ez da haundia izango". Iritzi berdintsua du Juan Oronoz, Leitzako alkateak, Aritz mendian 79.500 metro karratuko ingurua hartuko duten ha-

lau haize erroten eragina aztertzerakoan: "Energia garbia da, baina arraroa izanen da beti garbi ikusi dugun mendi bapatean errota betea ikustea". Rufino

azterketarik egin". Alkateek ez dute arrisku haundirik ikusten. Pello Zestau, Ezkurrako alkatearen esanetan, "Perdonekoa jarri zutenean, ekologistak ixilik egon ziren, beraz, ez dut uste kalte haundirik egongo denik. Inpakto bisualarena -dio Zestau- izaten ahal da arazo bat eta Erakurri

Mariezkurrenaren ustez, Eratsungo terrenoetan ez du kalterik sortuko, alde batetik dena larrea delako, baserri eta zuhaitzik gabeko ingurua eta bertetik, "ehiza eremua ez delako, kilometro erdira edo badira postuak, baina inguru hori ezkutuan dago".

**BERTAKO LANGILEAK?**

Alkateen aldetik, erroretan lanean aritu behar direnak bertakoak izateko intentzioa badago ere, EHN enpresarekin egindako bileran garbi gelditu zen langile es-

pezializatuak behar direla. Eratsungo alkateak ziurtatu duenez, "herrietako langileak sartzea nahi genuke, baina haiek esan zuten horko langileak ofizional prestatuak behar dutela izan. Behar den hori hemen ez bada kanpotik etorri beharko direla zioten". Halere, langile asko behar izaten dira eraikuntza lanak egiteko eta hor "bada intentzio osoa herrien aldetik lanpostu bat edo beste bertakoa izateko". ■



Arg.: Ixone Lacalle

Herria	Non	Zenbat errota	Urteko kuota
Eratsun	Iruñarri	3	3.500.000 pzta
Ezkurra	Ezkain-Erakurri	18	5.500.000 pzta
Leitza	Aritz	14	4.500.000 pzta

## GAURKOTASUNEKO GAIA

### Bertizko Partzuergo Turistikoa: gestioaren balantzea

#### Turismoaren gorakada bailara guztietan nabaritu da



Xabier OLLO  
ACIS enpresakoa

Udal eta Elkarte Profesionalen osatua dago Partzuergoa. Helburua zonaldeko ekonomia turistikoa garatu eta bultzatzea da, zonaldeko eginkizun ekonomikoak dibertsifikatuz. Bi urteotan eginitako lana hasi da emaitzak ematen, hain epe motza bada ere. Alde batetik, hurbiltzen diren turista kopurua haunditu da; uda honetan azken urte-etako zenbakiak ia bikoiztu dira. Turismo aroa luzatu da. Udaz gain 'temporada media' sortzen hasia da, Aste Saindua, ekaina eta udazkenean. Eta turismoaren gorakada Bailara guztietan nabaritu da. Bai turisten kopurua gehitzeak, bai denboraldia luzatzeak, turismoaren dirusarrerak izugarri haunditu dituzte, lanpostuak sortu eta mantentzen lagunduz. Gainera, Partzuergoaren proiektuak ilusioa sortzen du zonaldean; establezimentu berriak irekitzean eta proiektu berrietan ageri da. Bertzalde, Bertiz eta Partzuergoaren Antolaketa Inguruko herrialde eta Estatuko bertze erakundeek eredutzat hartu dute.

#### Hasieratik zonako jendeak ez du parte hartu, edo ezin izan du



Mikel IBARROLA  
BKZ [zerb. asoziatua]

Partzuergoa bere buruaz birplanteamendua ari da egiten orain; Zer da kontsurtzioa? Turismoaren nolako desarrolloa nahi dugu?... Bi urteotan indar, ilusio eta diru aunitz (ia 100 milioi pta.) gastatu da kontsurtzioa 'bluf' batez izateko, baina espektatibak ez dira bete. Gaur zonaldeko udal eta elkarte profesionalok proiektu sendo baten aitzinean egon beharko genuke, denbora honetan denon artean adostutako proiektu baten aitzinean, hain zuzen ere. Baina zoritxarrez ez da horrela. Hasieratik jendeak ez du proiektuan parte hartu, edo ezin izan du, eta inplikazio faltaren ondorioa da kontsurtzioa bi urtez norabiderik gabe ibiltzea. Alde on bat aipatzekotan, kanpora begira sortu duen irudi ona legoke, baina barnera begira alde negatiboak daude: desinformazioa, iniziatiba aunitz blokeatuak, garbitasun eskasa adjudikazio eta kontabilitatean, gestoreak (ACIS) planteatutako aktuzio planatik ez du %10a ere bete...

#### Orain arte egindakoaz hausnartzeko tenorean gaude



Gloria AGERRI  
Berako kontzejala

Zonako garapen ekonomiko globalaz kezkatuak, Bertizko Partzuergo Turistikoa udalen inizatibaz sortu zen. Garai hartan behar batzuk agertu ziren: nekazari eta abeltzainen arazoengatik, populazioaren zaharkitzeagatik, gazteendako pizgarri falta nekazaritzarekin segitzea, eta zerbitzu sektorea ere zaharkitua eta pizgarrien beharrea. Horrela, guztioi zuzenduko zizun gerente batek gidaturik, Udal eta Elkarte Profesionalak funtzionatzen hasi ginen. Gauza aunitz lortu dira, Espainian barrena Bertiz ezagutzera eman da, baina orain arte egindakoaz hausnartu eta balorazioa egiteko tenorea ailegatu da. Baliteke hau garrantzitsuagoa izatea, bere horretan gauzak egiten segitzea baino. Orain hasten dira zailtasunak, baina ez du zergatik horrela izan behar, berez, zonako garapen ekonomiko integrala biltzen badugu. Zera hauetaz hausnartzen animatuko nuke: zer nahi dugun, nortzuk nahi dugun, zertarako eta zeintzuk nahi dugun.

**Zuzendaria:** Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhua Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Pello Etxegia, Txema Urroz, Patxi Otxandorena, Daniel Martirena, Ixabel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Alberto Sansiñena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Patxi Lasas, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria, Arantxa Zabala... **Inprimategia:** Gertu (Oñati). **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

**ttipi-ttapa**  
urte oso batez  
(24 aldizkari)  
Ameriketara  
bidaltzeak  
8.000 Pta. balio du.  
Interesatua egon  
ezkerro, deitu  
948-631188ra

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



**Nafarroako Bertsolari txapelketa**

**Xabier LEGARRETA**

Goizuetako Bertso Eskola  
Doinua: Aita izena...

*Nafarroa eta Iparraldea kantuan jarririk plazan kanporaketak Alduden eta Donezteben jarri martxan finalaurrea Barañainen da egiz behar bada esan pasoa euki edo ez euki denok finalean Leitzan aurrerapausu gehioren bila hobetzeko esperantzaz (bis).*

*Lehenik eta behin behar genduke entzulearen babesa bi epaimahaiko berri dauzkagu ez daukate lan erreza kanporaketan pasatzen denak finalurreko promesata finalera pasatzen denak hark dauka arazo beltza besterik ezin nezake esan onenak irabaz beza (bis).*

**Emakumearen eguna dela eta...**

Zer iduritzen zaigu izan beharko lukeela egun honek? Eta... zer da benetan egun hau? Bi galdera hauei, seguraski, ezin izanen diegu erantzun bera eman; izan ere azken urte hauetan hasieran izan zuen zentzua edo esanahia galdu du. Emakumeon aldarrikape-nak kanporatzeko erabiltzen zen egun hau, jai egun gisa hartzen dela iduritzen zaigu. Nahiz eta askok, emakumeak lortu duenarenekin nahikoa duela uste izan, oraindik lan asko dago egiteko eta 'gehiago' esango genuke; hau da, langabezia dela eta emakumea da zigortuena eta lanerako aukera gutxien daukana.

Leitzako Kultur Talde bezala arlo honetan ere emakumeengan, emakume garen aldetik inguratzen gaituzten arazoetaz kezka sortzea gustatuko litzaiguke. Bakoitzak egiten duen lana, (nonahi edo zeinahi lanetan) garrantzizkoa dela eta baloratzen jakin dezan, aurten hiru egunetarako ekitaldi desberdinak antolatatu ditugu.

Lehena, 'autoestima' ren inguruan izanen da, bigarre-na irratsaio baten antola-

keta eta azkena gure gorputzaz jabetzen lagunduko digun tailer bat. Leitzako eta inguruko adin guztietako emakumeak ekitaldi hauetan parte hartzera animatzen zaituztegu. Honelako aukerarik ez dugu noiznahi izaten eta interesgarriak eta aberatsak gerta daitezke ekitaldi hauek denontzat.

LEITZAKO KULTUR TALDEA

**Goizuetako zabortegia**

Zaborteziaren egoera lotsagarria salatu nahi nuke lau hitzetan. Nik ez dakit zenbat milioi gastatu zituen Udalak zabortegia eraikitzen orain dela 2 urte, baina ikusi egin behar da ze egoera tamalgarrin dagoen. Deskargako iturritik hasi eta Olatxoraino zabaldu da zaborra. Zaborra eusteko egin zen pareta aspaldi gainditu zuen zaborrak eta beheko pistaraino zabaldu zen. Beheko pistetan, pasadizoa egiteko, aguazilak ere eskabadora berriarekin pistako zaborrak errekarra bota ditu behin baino gehiagotan. Zabortegia inguratzen zuen sarezko hesia ere beheko aldean txikituta dago, eta bertako barrakoiaren ateak ere hautsi eta lurrean daude. Milioi pila batekin txapuza

ederra egin zuten ingurugiroa hondatuz. Hasieran 'Cervezas El Leon' ekoei bota zitzairen errua, baina gauzak berdin (okerrago) segitzen dute. Adierazi nahi nuke ere Goizuetako herritar batzuz lotsa eta nazka sentitzen dudala. Duela hiruzpalau urte Arranbide eta Agoñoko erreka bazterrak garbitzera mobilizatu ziren, ekintza sinbolikoa eginez. Eta orain bertako paraje polita nola izorratu duten ikusi eta hemen aipatutako hoiek ez dute behatz bat ere mugitu. Askoz ere hobeki izanen litzateke zaborra Olatxon bertan botako balitz errekarra. Horrela Urumea besterik ez litzateke kutsatuko eta ez orain bezala, mendiko iturrietatik hasi eta itsasoraino. Era berean Goizuetako HBko alkateari galdetu nahi nioke hitza betetzen noiz hasi behar duen. 94ko udan zabortegiko inguruak garbieraziko zituela agindu zuen, baina berdin segitzen du. Goizuetako HBko udalak hobe izanen luke kanpoko politika kontuak utzi eta bertakoak hobeki egiten saiatuko balitz.

A.J.E.A. GOIZUETA



**Giltzaren bila**  
Lehiaketa

Izen-Deiturak.....  
Helbidea.....  
Herria..... Tfnoa:.....  
Giltza ..... orrialdean dago. Zebazki, zein tokitan? .....

Kupoi hau moztu eta Bera, Doneztebe, Leiza edo Lesakako EUSKADIKO KUTXAREN sukurtsaletan utzi lehenbailehen.  
LEHIAKETA HONEN OINARRIAK 151. ALEKO AZKEN ORRIALDEAN AGERTU ZIREN


Aldi honetako jabetxeak ZALAIN eta ESKISAROI  
CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Hurrengo **lau hilabeteotan**, otsaila, martxoa, apirila eta maiatzean, bi lagunendako **8 ordu** (15.000 pezetako afari edo bazkaria) **zozketatuko dira** EUSKADIKO KUTXAREN **giltza aurkitu dutenen artean**.

Giltza aldizkari honetako edozein tokitan egoten ahal da. Orrialde honetako publizidadekoak ez du balio. **Bilatu!** eta aurkitu duzunean, **bete ondoko kupoa edo deitu beheko telefonora.**

TELEFONOZ DEITZEKO ORDUTEGIA:  
Asteleheneetik ostiralera goizeko 8etatik gaueko 10etara  
Larunbatetan goizeko 8etatik arratsaldeko 3etara

**901 - 333444**  
*Anima zaitetz parte hartzera!!*



EGUNKARIA 95-II-23

«Ni arrunt gaztea nintzela, Iturengo gizon zahar batekin jarri genituen Foruen Plaza Herriko Etxearekin lotzen duen bideko harri-xabalak. Orain baino sasoi eta indar hobea nuen».

**Genaro ITURBIDE**  
Berako jubilatua  
Egunkaria 95-II-23

Titin eta Arretxeri irabazitako txapela eta binakako lehendabiziko txapela dira nere oroitzapenik politenak, bigarren mailako eskuz banakako txapelaren ondotik».

**Antton MAIZ**  
Arantzako pilotaria  
EGIN 95-II-15

«Orain bi urte, Alustizarekin batera

- ◆ **Zein dituzu klienterik onenak?**
- ❖ Gehien etortzen direnak emakumeak dira.
- ◆ **Jendeak aunitz saltseatzen du?**
- ❖ Ez, gehiago begiratu beharko luke.
- ◆ **Nola gogotu zitzaizun bazarra jartzea?**
- ❖ Lanik gabe nengoen, eta honelako negoziarik ez zegoenez...
- ◆ **Nondik lortzen duzu jenero merke hau?**
- ❖ Orientekoak dira. Han arras merke egiten dute lan.
- ◆ **Beti gauza berdinak eskeintzen dituzue?**
- ❖ Ez, egunero ailegatzen dira gauza berriak.
- ◆ **Zer iduritzen zaizkizu etortzen diren turistak?**
- ❖ Jende lasaia dela.
- ◆ **Zer iduritzen zaizu karreteran egiten ari diren obrak?**
- ❖ Ongi, beharrezkoa da espaloiak egitea.
- ◆ **Lore naturalak edo artifizialak?**
- ❖ Naturalak, dudarik gabe.
- ◆ **Lore bat?**
- ❖ Gardenia.
- ◆ **Udako bestak edo negukoak?**
- ❖ Udakoak, alaiagoak dira.
- ◆ **Telebistako programa bat?**
- ❖ ¿Quién sabe donde?



**Sagrario BARCINA**  
Donezibeko  
Bazar 100ekoa

**LABE ZAR**  
© 631076 • BERA

**KIROLAK ZELA**  
Altzate 6, © 63 05 98  
BERA

**OKANE**  
**HARATEGIA • URDAITEGIA**  
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

**GRUPO**  **ZURICH**  
**ASEGURO OROKORRAK**  
Itzea, 4 — BERA — © 63 07 63

**MOLINERO**  
**PINTURAK**



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

Eztegara 19 • © 63 02 40 • BERA



Bera

# Zabortegei berria obretako hondakinentzat

Ibardin aldekoa itxi egingen da eta Okalarre inguruan berria zabaldu

KRISTINA BOAN

Okalarreko aterpearen inguruan, gerra ondotik militarren futbol zelaia izandakoan jarriko dute hemendik aitzinerat Berako obretako zaborrak botatzeko zabortegei berria. Orain arte zabortegei hau Ibardingo bide bazterrean zegoen, baina ur-zikinak sortzen zituenez, ixteko agindua hartua zuen udalak. Zabortegei berria kokatzeko han eta hemen begira ibili ondotik, Okalarre aldean jartzea erabaki du udalbatzak.

## RAMON TELLETXEA ATXILOTUA

Ramon Telletxea 'Otsango' gazte intsumisioa atxilotu zuen guardiazibilak otsailaren 18an. Atxilotetari buruzko informazioa emateko batzarreak egin ziren egun berean eta igandean manifestazioa atera zen Ramonen askatasuna eskatuz.



## Elkarrik mahaingurua antolatu du Ansoanean martxoaren 3rako.

"Nafarroa gaur eta etorkizunean" izenburuarekin, Pello Apezetxea (apeza), Jose M<sup>a</sup> Arribillaga (ELA), Jose Luis Etxegarai (PNV), Iñaki Gogorza (HB), Lourdes Indaburu (EHNE), Jose M<sup>a</sup> Irazoki (Toki Ona), Erramun Martiarena (Ikastola), Julen Mitxelorena (LAB), Jose M<sup>a</sup> Rodriguez (Eskola) eta Jose Luis Semper (EA) arituko dira martxoaren 3an, arratsaldeko 7etatik aitzinera Ansoanean. Moderatzaile lanean Xorroxin Irratiko Joseba Igarabide izanen dute. Mahainguru hau publikoarentzat zabalik dago eta nornahi joaten ahal da.

## LOGSEari buruzko hitzaldia Kultur Etxean

Martxoaren 13an (astelehena), 5,30etan izanen da Kultur Etxean. Datorren ikasturtean, 7. maila eta le-

hen hezkuntzako ikasketak bukatzen dituztenentzat Hezkuntza Erreformaren lehen zikloa martxan jarriko

denez, gai honi buruzko hitzaldia antolatu du Toki Ona institutuko guraso elkar-teak. Nafarroako Gobernuako ordezkariak eta Toki Onakoak parte hartuko dute.

ttipi-flash

## Emakumeen Eguna

Martxoaren 8an Emakumeen Eguna izanen dela eta zenbait ekitaldi antolatu ditu emakume taldeak. Honela, larunbat honetan hasi eta martxoaren 8ra arte emakumeek egindako eskulanean erakusketa izanen da Kultur Etxean. Aspetean (7), depresioari buruzko hitzaldia emanen da. eta 8an, 'Como agua para chocolate' filmea emanen da Egun berean afaria izanen dute Zalainen. Izena emateko 630967ra deitu.

## Intzolako zabortegeiko

ur-zikinak Berako ur-zikinaren sarera biltzeko obra egiten ari dela probetxatuz, bidenabar, bide hortan dauden baserrietako ur-zikinak biltzeko erabakia hartu du Udalak.

## Zaharretxe berriko obrak

Inguruko etxeetako bajejetan arrailak agertu zirela eta denbora batez geldirik egon ondotik, berriz hasiak dira.

**BOAN**  
TAILERRA  
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

**ZIZKA OSTATUA**

Martxa eta mozkor saltsa  
Altzate 28 • BERA

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

**SAROB**  
okindegia

SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

*Errekalde ostatua*

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

**Lesaka**

# 'Enpresaren arduragabekeria' salatu dute sindikatuek

500 bat langilek parte hartu zuten otsailaren 22an egindako batzarrean

**AITOR AROZENA**

Enpresaren arduragabekeria salatu dute fabrikako sindikatuek, otsailaren 22an egindako batzarrean. Bertan, sindikatu guztiak deituta 500 langile inguruk parte hartu zuten, aspaldiko urtetan egindako batzarrerik haundiena beraz.

Langileek birmoldaketaren aplikazioa kontraesan bezala da goela adierazi zuten: "aurrejubilazioaren bidez lanpostuak murriztu diren bitartean, ordu extrak sartzen ari da jendea eta badaude 58 urteko langileak jubilatuta gabe". Cuadros sindikatuak "inbertsio falta" ikusten du fabrikari. Gai hauetaz konsultatzen negoziaketa komisio bat ibiliko da fabrikako sekzio guztietan.

**ARKUPE-N BATZARRA**

Arkupe pilotazaleen elkarteak larunbat honetan, martxoak 4, arratsaldeko 6etatik



Igeriketa ikastaroak 80.000 pezeta jaso ditu

Artxiboa

## Kiroletarako milioi erdiko dirulaguntza jaso du udalak zonaldeko kirol bulegotik

Joan den urtean antolatutako kirol ekitaldiarako 515.000 pezeta jaso du udalak zonaldeko kirol koordinatzailek. Banaketa egiterakoan, igeriketa ikastaroak 80.000 pezeta,

patinaje ikastaroak 60.000, saskibaloia eskolak 40.000, masaia ikastaroak 50.000, txirrindularitza eskolak 70.000, jubenilen futbol sarietak 40.000, mendi-bizikleta ibilaldiak 75.000, txirrin-

dulari konzentrazioek 50.000, xake edo ajedrez eskolak 10.000, haundien futbol sarietak 10.000, lera-zakur laisterketak 10.000 eta Mendiko Asteak 20.000 pezeta jasoko dituzte.

aitzineraren burutuko du urteroko batzar orokorra. Kontuen egokiera eta joan den urteko

aktibitateen balantzea egin ondoren, aurtengo ekitaldien egitaraua eta aurrekontuak aur-

keztuko dituzte. Azkenean, zuzendaritza batzorde berria aukeratu dute.

*ttipi-flash*

- ◆ **Poesia emanaldia**  
izanen da Matxinbeltzenezan martxoaren 9an, ortzeguna, arratseko 7etan Juan Kruz Igerabideren eskutik. Martxoaren 16an berriz, kantaldia eskeiniko du Erramun Martikorenak gaueko 10etan.
- ◆ **Mendiko suteen**  
kontrako azpiegitura hobetzeko proiektua egingen du Foresna-Zurgaia elkarteak, Pagolleta-Domiko-Aritxulegi ingururako. Herriko Etxea, Nafarroako Baso elkarrekin honetako kide egin da azken plenoan.
- ◆ **Manipuladore karneta**  
ateri edo berri nahi baduzu deitu 637264ra. Talde bat sortuz gero, Iruñetik etorriko lirateke harat joan gabe.
- ◆ **San Fermin**  
jubilatuta elkarteko 75 kidek Iruñeko katedrale berritua eta Planetarioa bisitatu zuten otsailaren 18an, CANen eskutik.

**KOXKILA  
OSTATUA**

Zarandia, 4 - LESAKA

**XATURETXEA**

**JATETXEA**

Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

**LORA DENDA**

**TXIRULA**

Bitirria 627542 LESAKA

bitxikeriak • opariak • eskulangintza

**EKAITZA kafetegia**

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13  
☎ 948 - 62 75 47

**LESAKA**

Lagunekin elkartzeko toki egokia

**EROSLE**

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereena

**Frexkuena zugandik hurbilago**

Bitirria, 67 - ☎ 637264

**Etxelar**

# Urtzain gizen! Urtzain gizen!

Goiz eta arratsalde, haurren gozatzea

PELLO ETA ALBERTO

Nafarroako Gobernuko ikuskari edo inspektoreak duela hilabete batzuk erakutsi bezala, Larraburuko etxebizitza hobetzeko aldatketak egin behar dira. Horren arabera, zortzi ohatze izan beharrean, pentsatu zen bezala, zazpi izanen dira, baina egoiteko toki haundixeagoa. Ur berzoko kalefakzioa eta bigarren solairua hobeki probexteko lanak ere egin dira. Zazpi milioi pezetako kostua duen proiektua udalak onetsi du. Eta egin? Nafarroako Gobernuak dirulaguntza luzatzen duenean, erdia bederen emaitza segurutzat jotzen baita. Ez jakin noiz emanen duen.



Karrikaz karrika soinuarekin

Argazkiak: PELLO



Mozorro ikusgarriak zituzten neska-mutikoek



Goizeko eskea

## Behien segurantzarako kofradiaren batzarra otsailaren 5an bildu zen

Otsailaren 5an bildu zen behien segurantzarako kofradiaren urteko batzarra. Beti bezala, bazkaldu eta urteko kontuak eman ondotik, 1995erako Auzo-gizonak hautatu ziren: Tolareko Bordako Pedro Galarregi eta Antsoneko Bordako Juan Gallardon Orizki auzorako; In-

tzeko Bordako Jose Ariztegi eta Elizaldeko Bordako Klaudio Espelosin Lakain, Gorosurreta eta Lurrizti-ederra auzoetarako; Behekozubiko Pedro Berrueta eta Armitxeko Jose Luis Etxarte Urritzokieta eta Larrapil-Sarriku auzoetarako. 1994an tximistak galdutako haziendarik

ez bazen izan ere, eritasunagatik hil eta kofradiak ordaindutakoak hiru izan ziren: Tolareko Bordakoa, Mendiondoko Bordakoa eta Mitxeleneko Bordakoa. Kofradiaren lehendakari Mendiondoko Bordako Jose Mari Pikabeak segituko du bertze urte batez.

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127  
**LESAKA**

**ZALAIN**  
JATETXEA

Zalain Auzoa  
☎ 63 09 67  
**BERA**

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

**Boda eta banketeak ematen dira**

« **USOA** »  
NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14  
**ETXALAR**

**koxkonta**

*Sagardotegia zabalik*

*Deitu erreserbak egiteko*

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

**HERRIKO OSTATUA**

**Jatetxea**

*Urte berriarekin batera indarberrituak*  
*Kuadrila, elkarte etabarrentzat... menu bereziak prestatzen dira*

☎ 635290  
**ETXALAR**

**Igantzi**

# Jendearen partehartze haundiagoa eskatzen dute iñauteriek

Heldu den larunbatean mus eta partxis txapelketaren finalak Biltokin, hurrengoan berriz, urteko batzarra

OSKAR TXOPERENA

Ortzegun Gizenarekin eman zaie akabilara aurtengo iñauteriei. Ohitura den bezala, ez da haurrik falta izan etxe guzietan eskean (noizko mozorro jantziak?). Aintzineko egunean, eskolako haur guztiak mozorroturik ibiliak ziren herri guzian barna, ttikiak pirataz eta kokkorak, berriz, mairuz.

Aintzineko astean eginak ziren iñauteri nagusiak. Inoiz baino gazte gehiago ibili zen herri eta auzoetan barna, 30 guztira. Giro polita paratu zuten, larunbat arratsaz ezin gauza bera erran. Herriko Etxeko jatetxea itxita egon izanak bere era-



Familia osoak omendu zituen Bixente eta Oliba otsailaren 11an. Igantzin meza entzun eta gero Berara joan ziren elkarrekin bazkaltzera. Argazkian, Trantxetar iloba guztiekin ditugu

Arg.: ARANA

gina izanen zuen, baina halere, jendeak ez du parte hartzeko gogo haundirik erakutsi. Hagitz jende gutti ikusi genuen.

## BILTOKIN ZENBAIT EKINTZA

Hurrengo bi larunbatak garrantzitsuak izanen dira Biltoki elkartearen, 11n, negu oso-

an jokotutako mus eta partxiseko finalak jokatuko baitira eta hurrengo larunbatean, 18an, urteko batzarra izanen delako. Urtean

behin egiten denez, garrantzi haundikoak izanen dira bertan erabaki beharreko gaiak eta bazkideen partehartzea eskatzen da.

## BARATZONDOKO OBREN AZKEN UKITUAK

Akautzeko puntuan daude zahar etxea, tennis pista eta piszinak. Langileak azken ukituak ematen ari dira, zuhaitzak, loreak, eta kanpoko itxidura behar bezala paratzeko lanean ari baitira. Eguraldi epelagoaren esperoan omen daude falta diren belar zatiak ereiteko eta tennis pistaren argiak ere abudo paratu behar omen dituzte. Inaugurazio ofiziala bertzerik ez zaio falta erabiltzen hasteko.

## ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mobleak



ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26  
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA

Moble eta tresna zaharrak erosten ditugu. Ez du inporta zein egoeratan. Joan-etorria ez dugu kobratzen.

Tfnoa eta Faxe: 943-610193  
IRUN



## ANSONEA JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • BERA

**Arantza**

## San Jose egunean apostu bikaina izanen da frontoian

Juan Bautista Bergara motozerrarekin eta Joxe Miguel eta Oskar arpanarekin arituko dira

GARBINE ETA ELIXABET

### DANONEKO LANGILEEN ALDE

Ultzamako Danone ixtearen kontra bertze 25 udalek hartutako erabakiarekin bat egitea erabaki zuen udal batzarrak ahobatez. Danone lantegia ixtea eta honek ekarriko dituen ondorio sozial eta ekonomikoak negatiboak direla eta iritzi publikoaren aurrean langileekin elkartasuna adierazi nahi dute. Eraberean, erakunde publikoei lantegiaren jarraipena eta bertako lanpostu guztien mantentzea eskatu nahi dute.

### Itoizko URTEGIAREN KONTRAKO ERABAKIA

Pleno berean, Itoizko urtegiaren gaur egungo egoera ikusirik, Longidako udalak hartutako erabakiarekin bat egin du Arantzakoak. Gai honi bu-



'Banana' motozerrarekin eta Joxe Miguel eta Oskar arpanarekin. San Jose egunean apostu ederra ikusiko dugu, dudarik gabe

Martxoaren 19an, San Jose eguna, eguerdiko 12.30etan herri kirol apostu bikaina izanen da Arantzako frontoian.

Juan Bautista Ber-

gara 'Banana', 48 urteko mutila arituko da alde batetik motozerrarekin, 60 ontzako enberrari hogeitama-bortz ebakialdi lehenbaitlehen egiteko in-

tentzioarekin. Bertalde, 19 urteko Joxe Miguel eta 21 urteko Oskar arituko dira arpanarekin eta kanaerdiko enberrari hamar korte egin beharko

dizkiote.

Alde bakoitzetik 100.000 pezeta jokatuko dira eta apostua egin nahi duenak, Primitibo ostatura jogan beharko du.

ruz, Nafarroako Gobernua eta Herrilan ministeritzak azaltzen duten ixiltasuna eta presioak salatzen dira eta aldi berean, Itoizko urtegiaren lanak geldiaraztea eskatu da, ahobatez.

### Amaia Telletxea txapelketan

Amaia Telletxea bertsolari arantzarrak Nafarroako txapelketan parte hartuko du aurten ere. Lehenbiziko kanporaketa Aldudeko kultur etxean iza-

nen du igande honetan (martxoak 5) arratsaldeko 4etan. Bi alditan parte hartu du Amaiak txapelketan eta bietan finalera ailegatu da. Animo!

### ttipi-flash

❖ **Maria de Rueda** 19 urteko gaztea Arantzako eskolan magisteritzako praktikak egiten hasiko da, hilabete batez goi zikloan.



63 11 88

### ttipi-ttapa

Ameriketara Zure senide edo lagun bat Ameriketara bizi eta aldizkaria jasotzea nahi baduzu, deitu eta informazioa emanen dizugu.



MATXINBELTZENA

LESAKA

Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxa: 62 75 53 • LESAKA

**KATTU**  
OSTATUA  
JATETXEA



**Sunbilla**

# Futbol-sala txapelketa bigarren fasean sartzeko punttuan

Arazo larriak izan ziren Arantzako Ekaitza eta Narbarteko taldearen arteko partiduan

IXABEL ETA JOSUNE

Aurtengo futbol-sala txapelketa aurrera doaie eta bigarren fasea pasatzeko gauzak ez daude batere errexak. Horretarako borrokan ari diren taldeak, hauek dira: Burrumba, Xanpale, Arizkun, Elgorriaga, Ulibeltsak A eta B, Titi ostatua eta BKZ.

Dena den, aipatzekoa da duela aste pare bat Narbarte eta Ekaitza arteko partiduan izandako arazo eta istiluak. Dena Ekaitzako jokalariei batek Narbarteko jokalariei bati sarrera gogorra egin zionean hasi zen, epaileak bi minuturako kanpora bidali zuelarik. Hortik aitzinera dena



1982. urtean herrian atera zen lehendabiziko taldea. Oraingo taldeek paper ona egiten badute ere, lehengoak ez zen nolana hikoia

okerretik okerragora joan zen, Ekaitzako taldearen partez gaizki erranak epailearentzat, sarrerak eta azkenean talde horretako batek, epailea kolkotik hartu

eta lixtua bota zion aurpegira. Ondorioz, Ekaitza taldeak ezin izanen du inoiz herriko txapelketan jokatu eta talde horretako jokalariei batzuk ezin izanen

dute jokatu, ezta bertze talde batekin izena emanda ere.

**KARRIKA NAGUSIKO SANEAMENDUA**

Udal zinegotziek,

Julian Diaz de Radarekin elkarriketa izan zuten. Honek, Karrika Nagusiko proiektua onartu dutela jakinarazi zien, Errekalde karrিকা ezik. Dena den, karrিকা honi buruzko txostena aurkeztuko duela adierazi zuten.

**Itoizko Urtegiari Buruzko Mozioa**

Udalak ahobatez onartu zuen Itoizko koordinadorak aurkeztutako mozioa. Mozio honetan, Itoizko urtegiaren lanak berehala geldiaraztea eskatzeaz gain, Estatuko Herrilan ministeritzak eta Nafarroako Gobernuak afera honetan erabiltzen ari diren indarkeria eta azaltzen duten ixiltasuna eta presioak salatu zituzten zinegotzi guztiek.



**GAZTANDEGIA**  
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda  
Tfnoa: 45 08 62  
**SUNBILLA**



**SANTAMARIA**  
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**TELLETXEA MOBLEAK**

**ZUREZKO PERFILAK**

AZKENEAN, ATE-KORREDERAK  
ZURE LOGELAREN ESTILOAREKIN  
BATERATU AHAL IZANEN DITUZU  
AKABERAK ZURE GUSTORA EGINAK  
ZURAK BEREZKO DUEN DOTORETASUNA  
ZURE LOGELAREN ESTILORA  
EGOKITZEA ESKEINTZEN DIZUGU

**NOBEDA  
ESKLUSIBOA**

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

**Doneztebe**

# Bertsolari txapelketako bigarren kanporaketa martxoaren 12an

Martxoaren 10ean, ortzirala, Xabier Amurizaren hitzaldia eta Lizaso eta Egañarekin bertso afaria Ameztian

**TXEMA ETA KARMELO**

Nafarroako Bertsolarien Lagunak antolatutako txapelketa berriro ere Doneztebera iritsiko zaigu, martxoaren 12an, igandean, arratsaldeko 4,30etan, Bordatxo dantzalekuan izanen baita bigarren kanporaketa. Bittor Elizagoien txapel-duna, Joxe Fermin Argiñarena, Kexus Arzallus, Laka, Iñigo Olaetxea, Josema Leitza (berria txapelketan), Estitxu Arozena eta Estitxu Fernandez izanen dira bertsotan ariko direnak.

Saio honen antolakuntzaz Langarra euskara taldea arduratuko da. Egun horretan, eguerdiko 2etan bazkaria eginen da bertsolarien jubilatuen jatetxean. Bazkariaren balioa 1.500 pezetakoa izanen da eta edozein etor daiteke. Txartelak Belarra kafetegian eta jubilatuen ostatuan (Donezteben), Mugitz jatetxean (Sunbilla),



Bertsozaleentzat asteburu polita izanen da hurrengoa. Txapelketako saioa, bertso afaria eta bertsolaritzari buruzko hitzaldia izanen dira  
Argazkia: Artxiboa

Elgorriaga, Ituren, Zubieta eta Donamariako herriko ostategian eskuratzen ahal dira dagoeneko. Goiz partean eta bazkalondan trikitilariak ari-tuko dira herrian bar-na. Bertso jaialdirako sarrerak 500 pezeta balioko du eta arestian aipatutako tokitan salgai egonen dira azken astean. Arratsaldeko

3,30etarako Bordatxo-ko atea zabalik egonen dira.

**XABIER AMURIZAREN HITZALDIA**

Xabier Amuriza bertsolariak hitzaldia emanen du martxoaren 10an, ortzirala, arratsaldeko 7,30etan liburutegian. Gaia bertsolaritza izanen da noski, eta helburua be-

rriz, igandeko saiorako giroa berotzea eta animoak piztea.

Aipatzekoa da, Doneztebeko udalak 250.000 pezetarekin lagundu duela Nafarroako bertsolari txapelketa hau, ahobatez onartu baitzuen udal batzarreak. Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarteak egindako es-

*ttipi-flash*

- ◆ **Bertso afaria** izanen da martxoaren 10an, gaueko 9etatik aitzinera Amezitia jatetxean. Bertan Xebastian Lizaso eta Endoni Egaña ari-tuko dira eta txartelak erosteko epea martxoaren 5an akituko da. Bertsozaleen gustuko asteburu izanen dugu beraz, hurrengoa.
- ◆ **Herrian zirkulatze-ko arauak** betetzen ez direla eta, Patxiku eta Tomas langileei dauden ordenantzak errespetarazi eta betearazteko agindua eman die udalak.
- ◆ **Dantzarien jantzi** eta koroiak erosteko dirulaguntza eman dio udalak bertako dantza taldeari

**FUNERARIA ZERBITZUAK  
DONEZTEBEN**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA

**BEINTZAKO  
OSTATUA**  
Tfnoa: 45 00 14  
BEINTZA-LABAIEN

**ttipi-ttapa**

6.000 harpidedun  
20.000 irakurle

**MariCruz  
LENTZERIA**

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

Zubietako

## Zubietako emakumeen afaria larunbat honetan ospatuko da

Ekitaldiaren antolakuntzan laguntzeko 50.000 pezetako dirulaguntza eman du udalak

### AINHOA MUTUBERRIA

Martxoaren 8a, emakumeen eguna da eta hori ospatzeko afari bat antolatzea erabaki da. Egun hau astez denez, martxoaren 4era, larunbata, aldatu behar izan da, neska-andre guztiek jai honetara elkartzea posible izateko. Agian, norbaiti garestia irudituko zaio, 3.000 pezeta, baina kontuan hartu behar da bertsolariak eta musika talde bat etorriko direla, denak neskak noski. Udalak 50.000 pezetako laguntza eskeini du ekitaldi honen antolaketan laguntzeko.

Mutil askok esan izan dute tontakeri bat dela jai hori egitea, baina ez dira konturatzeko gizonezkoek iruditzen zaien guztietan egiten dituztela afariak eta emakumeak berriz, ez dutela aukera askorik izaten. Hortaz, egun seinalatu bat badago "sexu debilarentzat"



Oitzko Irazabal inguruan 19 hektarea landatuko dira

Artxiboa

aitzaki hau aprobetxatu behar da juerga galanta egiteko.

### BERTSOLARITZA KLASEAK

Denbora galdu gabe, bertsolaritza klaseak hasi dira. Lehenbiziko saioan, hamar pertsona besterik ez dira bildu, baina gero eta interesa gehiago izanen duen esperantzaz daude. Kontu zaharren asuntua ere martxan dago.

### Legasako fabrikara joateko zubi egiten hasiak dira

Fabrikara joateko zubi berria egiten hasiak dira Legasan.

Herri lanetarako kontseilariak bere egunean lan hau aitzinera eramateko onarpena eman ondoren 102 milioi t'erdirekin finantziatuko du Nafarroako Gobernuak. zubiak gain, Iru-

ñea-Irun errepidean rotonda bat egitea ere aurreikusten da. Modu honetara, fabrikara sartzeko ez da herriatik pasatu behar.

Lanak 'Navascues Obras y puentes, S.L.' eta 'Alcer', S.L. enpresek egiten dute eta sei hilabeteko epea izanen dute akitzeko.

ttipi-flash

### Oitzko

Irazabal ingurua birlandatzeko 11 milioi pezetako aurrekontua duen proiektua onartu du Nafarroako Gobernuak Nekazaritza eta mendi sailak. Plantazioak 19 hektareatan egingen dira. Nafarroako Gobernuaren asmoa bertako arbolak sartzeko da eta ez pinuak edo gisako zuhaitzak.

### Doneztebeko hiltegia

edo mataderoaren funtzionamendu okerrak zuzentzeko egin behar diren gestioak egingen ditu udalak. Hilbeltzaren 9an, Nafarroako Gobernuak Ingurugiro zerbitzuko zuzendariak idatzi bat igorri zion udalari, funtzionamendu oker horien berri emanez.

## SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estrukturalak eta embalajeak

Zubizarra, SALDIAS • Tfnoa: 615108, 615044

## IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Dagoeneko ailegatu da UDABERRI eta UDAKO moda

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

**MENDAUR MOTOR**

Leitzarako errepidea, & 450333 • DONEZTEBE



**ITUREN**

**Mikeli Fagoaga da musika mini-katearen irabazlea**

IBAN ISASI

Aurreko alean aipatzen genuen oraindik ez zela agertu musika mini-katearen zenbakiaren jabea. Azkenean agertu da eta etxe-ko paperen artean ongi begiratu ondotik, Lasagako Maitxeneko Mikeli Fagoagari suertatu zaio hain entzutsua den sari hau.

Oroitarazi behar da Ibintza kultur taldeak antolatu zuela zozketa hau eta Iturengo Harriberriko Lazaro Erregerenari suertatu zitzaioela bizikleta.

**Zuhaitzaren Eguna eskolan**

Otsailaren 20an Iturengo eskolako haurrak beraien irakasleekin ospatu zuten Zuhaitzaren Eguna eta lortu zuten azkenean Ameziako inguruetan arbolak landatzea. Aspalditik zeukaten hau egiteko asmoa, baina eguraldi txarra zela eta ekitaldia gibelerraten joanak ziren. Egun osoa mendia eman zuten.

**Sagardotegira bidaiara**

Gipuzkoako sagardotegi batera joateko bidaiara antolatu du gazte koadrilla batek. Izena emateko ohiko lekuetara joan behar da lehenbaitlehen, epea akitzeko puntuan baitago. Martxoaren 11an joanen dira eta autobusez egingen da bidaiara, nahi izanez gero.

**Dirulaguntza Doneztebeko kirol taldeei**

Doneztebeko udalak 1994ko bigarren urterdiari dagokion dirulaguntza emandie Kirol Elkarteei. Honela, Erreka elkarte-ari 304.232 pta., La-

xoa elkarteari 24.400 pta., eta Txaruta Pilota elkarteari 8.040 pta. kendu (lehendabiziko 6 hilabetearen gehiegi eman zitzaiolako). Hiru elkarteek gas-

tuak aurkeztu zituzten, (2.081.000 Errekak, 199.900 Txarutak eta 359.425 Laxoak) baina bakar batek ere ez zituen diru sarrerak egiaztatu.

*ttipi-flash*

❖ **Langarra** taldeak egindako eskaera onartu du Doneztebeko udalak eta zinemaren kartelak euskeraz ere egingen ditu CANek.

**P.A.C. 95**

**ESKA EZAZU "AZALERAK 1995" LAGUNTZA CAJA RURAL DE NAVARRAN**



"Azalera 1995" laguntza zerbitzuari eskusiban emana dagoen espezialista taldeari eta automatizatutako sistemari esker, Caja Rural de Navarra zure eskaera aurkezteko modurik bizkor eta eraginkorrena eskeintzen dizu.

Eior zaitetz Caja Rural de Navarra eta laguntzarik onena aurkituko duzu.

"Azalera 1995": nekazal esplotazio hauen jabeek zuzendutako laguntzak; zerealen laborantza, oleaginosak, proteaginosak, gari gogorrendako suplementuak, lekadun aleak, bazkalekuak, haragitarako betabereak

(abeltzain dentsitate faktorearen kalkulua). Guzti hauek eskaera bakar bat aurkeztu behar dute '1995erako Lurgorri eta 1995erako uztarako ereintza Plangintza' rekin lagunduta.



**CAJA RURAL DE NAVARRA**

**SISTEMA  
AUTOMATIZATUA  
DUEN ESKAERA  
ZERBITZU  
ESKUSIBOA**

**Goizueta**

## Ustegabekorik gabe aurtengo Umore Onaren asanblada

Bestalde, martxoaren 4ean Trabuko taldearekin dantzaldia Korrikaren alde

ESTEBAN AROZENA

Umore Ona elkar-tearen lehenengo urte-etan ematen ziren asanblada luze eta sutsu haiek azken urteotako labur eta baketsuei txanda utzi diete. Honen eredu, joan den larunbatean zortzikoa izan zen, asanblada ez ohikoaren puntu bakarra, eta arruntaren hamaikak, ordu t'erdi inguruan eztabaidatu eta bozkatu baitira.

Komisioa osatuko duten karguen hautaketa ere azkenaldi honetan eta oso kriterio onez, paktatua izaten da. Horrela, garai bateko sorpresarik ez da izaten gaur egun hain



Umore Ona elkarteak eragin handia du herriko ekitaldietan Artxiboa

garrantzitsua den puntu honetan eta botoak kontatu aurretik, komisiokide berriak diren Patxi Olaizola, Miren Huizi eta Jon Etxegiaren izenak ahoz

aho zebiltzan asanbladan bildutako ia 50 lagunen artean.

Umore Onako bazkide berri izan nahi zuten zortzi herritarrek ez zuten inolako ozto-

porik aurkitu helburu hori lortzeko, ezezko bizpahiru boto bakkirik jaso baitzituzten, beste guztiak 40tik gora, baiezkoak izan zirelarik. Beraz, herrian

hainbesteko eragina eta presentzia duen elkar-te hau indarberriturik atere zen aipaturiko asanbladatik beste urte beteko lanari aurre egiteko.

### Dantzaldia Trabuko taldearekin

'Egan' talde famatuaren zatiketaren ondorioz sortutako 'Trabuko' talde berria ezagutzeko aukera ederra eskeini digute goizuetarrei mozorron komisiok eta Gazte Asanbladak, laister herrian edukiko baitugu, hurrengo larunbata gauetan frontoian burutuko den Korrika-9ren aldeko dantzaldibatean.

**Areso**

## Iñauteriak giro onean igarogenituen

Aspaldiko partez, karroza bat ere prestatu zen

JUANA MARI SAIZAR

Iñauteriak ospatu genituen otsailaren 10, 11 eta 12an eta eguraldiak ederki lagundu zuen. Ostiralean, 14 eta 16 urte arteko gazte-txoak afari bat antolatu zuten eta ondoren herrian zehar kalejira txistu eta akordeoiarekin. Larunbatean, egun garrantzitsuena, guraso batzuk ijitoz mozorratu ziren, beraien karroza eta guzti. Oso po-



Nola aldatu diren iñauteriak. Orain mozorro gehiago, baina giroa...

Arg.: Gereñoneako Kontxik utziak

lita zegoen, lana eta gogoa jarria zegoen hori egiteko eta plazako

mozorro guztiak karrozaren gainera igo eta herrian bueltaka ibi-

li ziren. Igandean, gaur-pasa egindako jendea nekatua zegoen eta

umeak ziren martxa pixko bat mantendu zutenak.

**Leitza**

# Irusuko etxean ostatu-jatetxea jartzeko asmoa du udalak

Erabili nahi duenak hogeiei eguneko epea du bere eskeintza aurkezteko

JOSEBA AZPIROZ

Irusuko etxearen ustiapena lehiaketaren bidez esleitzea erabaki du udalak, bertan jatetxe-ostatu bat jartzeko. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, 20 eguneko epea izango da pleguak aurkezteko. Eskeintza ekonomikoa gutxienez hileko 45.000 pezetakoa izan behar du eta etxea hartzen duenak jarri beharko ditu sukaldea, altzariak, elektratresnak, ontziteria, etabar...

Ustiapena bost urtetarako izango da, urtero prorrogatu ahal izango delarik hamar urte egin arte. Astean gutxienez sei egun ezduki beharko da ostatua irekia.

**ORDENAGAILUZ EGINDAKO DISEINUA**

Ordenagailuz egindako "AutoCad V10" diseinu ikastaroa izango da Leitza mar-



Beruetara egindako ibilaldian 95 lagunek parte hartu zuten. Sekulako giroan egon ziren, musika eta guzi. Arrakasta ikusirik Aurrerak ibilaldi gehiago egiteko asmoa azaldu du

Arg.: Rosa ZOZAI

txoaren 6tik apirilaren 112a bitarte, astelehenerik ostegunera, 5etatik 7,30ak arte (ordutegia ez da erabat finkoa). Matrikula saria 2.000 pezeta izango da eta izena udaletxean eman behar da, martxoaren 2a baino lehen. Martxoaren 6an, arratsaldeko 6etan bilera bat izango da ikasleekin Lanbide eskolan.

## Jende gutxi agertzen da zinema emanaldietara

Leitzako zinemako arduradunak kezkatu dira zinemak daraman martxarekin, oso jende gutxi doalako astero, ostiral eta igandetan egiten diren emanaldietara.

Horrela segituz gero, zinema emanaldiak bertan behera utzi be-

har izatea etor daiteke. Izan ere, orain arte bezala segitzekotan diru galera haundia izango da denboraldia bukatzerakoan.

Gauzak horrela, esfortzu bat egin behar genuke denok, kultur ekitaldi honen aurrera segitu dezan.

*ttipi-flash*

♦ **3.144 biztanle** zituen Leitza urte hasieran udal errol-daren arabera, joan den urtean baino lau gehiago. Iaz 22 haur jaio ziren eta 14 pertsona hil. Herri-rik aldegin zutenak 59 lagun izan ziren eta 46 etorri ziren Leitza bizitzera.

♦ **Patinaje ikastaroa**

Eskolako Guraso Elkarteak patinaje ikastaro bat antolatu du eskolako ikasleentzat. Otsailaren 22an hasi eta ekainan arte, asteazkene-ko 3etatik 4,30ak arte arituko dira pilotalekuan.

♦ **680 kiloko**

Nafarroako sokatira txapelketa burutuko da pilotalekuan larunbat honetan, martxoak 4. Bost taldek parte hartuko dute.

**GAZTELU ITURGINTZA**

**KALEFAKZIOA**

Elgoien 32  
Tfnoa: 51 00 86 •  
LEITZA



**ORAIN EUSKARAZ!**

EGIAZKO *Pioneer House* liburua

Kike Diez de Ultzurrun kazetariak itzuliak  
• 3 eta 8 urte arteko haurrentzat (Baita gaztelera, ingeles eta frantsesez)  
Ikastoletan **PROMOZIO KANPAINA**, hiru argazkiren **DOHAINEKO IMPRESIOA**:  
Haurrarena, klasearena eta ikastolarena

Informazio eta eskaerak Tel/Fax: 173433 • BARAÑAIN

*Dosduendes Pioneer House*





# Karrikako salmenta erregulatzeko ordenantza mahai gainean gelditu zen

Elizondoko komertziantek arras kezkatuak

**JOSEBA IGARABIDE**  
 Elizondon dauden 59 komertziantetik 43 joan ziren otsailaren 17ko udal-batzarrera. Lehenagotik, udalbatzak onartua zuen afera honen inguruko Udal Ordenantza egitea, eta egun horretan behin behineko onartuko zela espero zuten komertziantek, baina azkenean hurrengo udal batzarrea egin artio, mahai gainean gelditu zen erabakia hartzea. Komertzianteen ordezkaria den Jose Luis Belzunezik TTIPI-TTAPARI adierazi dionez, «*badirudi udalkideek ikaragarriko beldurra diotela erabaki bat hartzeari*».

Elizondoko komertziantek kexu dira ortzegunetako merkantuan karrikako salmentak izan duen gorakadarekin. Talde guzietako ordezkariekin bildu ondotik, idatzi bat aurkeztu zuten udalaren egoeraren berri emanez baina batzarrek ez zuten gaia tratatu, «*idatzi bat epez kanpo aurkeztu zelako*». Komertzianteen erranetan, erabaki hau «*lotsagarria*» da.



Iruritako Olari ostatuan antolatutako III. mus txapelketan Ernesto Villoria eta Modesto Ustariz izan ziren irabazleak

## Korrika antolatzeko bilera egin zen joan den ortziralean

Baztango AEKk deituta, Korrika-9 antolatzeko bilera egin zen joan den ortziralean. Aurtengoan, martxoaren 21ean (as-

teartea) ailegatuko da Baztanera. Izpegitik etorrira, gaueko bederatzia pasatuta ailegatuko da Iruritari. Hortik Elizondora, ge-

ro Oronozera (hamar t'erdiak inguruan) eta Almandoztik aterako da Arraitzeko Bentak aldera euskararen aldeko laisterketa hau.

## Baztandarren Biltzarraren 32. ediziorako kartel lehiaketa martxan

Baztandarren Biltzarraren 32. edizioa iragarriko duen kartel lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago dagoeneko.

Lanak, apirilaren 15eko eguerdia baino lehen egon beharko

dute Baztandarren Biltzarraren esku (22 P.K., 31700 Elizondo).

Kartel guzietan testu hau agertu beharko da: Baztandarren Biltzarra 95-Elizondon Uztailaren 16an 'Euskarak batzen gaitu'.

Gainerako ezaugarri teknikoak berri elkarrean emanen dute.

Epaimahaiak apirilaren 22an emanen du sariaren berri. Irabazleak eskulan oroigarri bat eta 50.000 pezeta jasoko ditu.

*ttipi-flash*

❖ **Iruritako parrokian**

zenbait moldaketa egin dira, teilatua konponduz, zola berrituz eta paretak pintatuz. Lan hauek eta Nafarroako bertze bi elizetakoak laguntzeko bortz milioi t'erdiko laguntza eman du Nafarroako Gobernuak.

❖ **Erratzun kontzertua**

Martxoaren 11n, larunbata, gaueko 11etatik aitzinera rock kontzertua izanen da Erratzuko frontoian. Baldin Bada, Etsaiak, Patagonia eta Beltzez taldeak arituko dira, Korrika-9aren aldeko ekitaldi honetan. Sarrerak ohiko lekuetan, aurrez 600 pezeta eta egun berean, 800 pezeta.

❖ **Xabier Idoate**

Lekarozko margolariak hirugarren saria eskuratu du Iruñeko Sanferminetako kartel lehiaketan. Kontuan hartu behar da 400 bat lan aurkeztu direla.

❖ **Aranabia**

pilotalekuan emakumeen frontenis txapelketa jokatzeko ari da. Bi mailatan banatu dira pilotariak eta bakoitzean zazpi bikotek jokatzeko dute.

**Eskisaroi jatetxea**  
 Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013  
**ELIZONDO**

ERLOJU eta BITXI DENDA  
**ARRIETA**  
 KIROL TROFEOAK  
 Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

**JATETXEA**  
 Tfnoa: 580101  
 Santiago 1  
 ELIZONDO  
**Galarza**



# 8.055 biztanle zituen Baztanek urte hasieran

Urtetik urtera gizonetzko gehiago eta emakume gutiago ditu bailarak

**PABLO MENDIBURU**

Joan den urtean baino bortsu biztanle gehiago zituen Baztanek urte hasieran udal erroldaren arabera, 8.055 hain zuzen. Gizonezkoen kopuruak goiti egin du aurten ere, eta emakumezkoenak behera, behiti.

Biztanle kopurua haunditu bada ere, heriotza gehiago izan ziren joan den urtean (100) jaiotzak baino (51 bertzerik ez). Beraz erraten ahal da kanpotik etorritako jendeak haunditu duela bailarako biztanleria (137 lagun etorri ziren bertze herrietatik eta 10 bertze estatuetatik. Herritik kanpora bizitzera 109 baztandar joan dira. Herriz herriko jendea agertzen ez bada ere, baztandarrek Elizondo eta Elbeten biltzen dela erraten ahal da, bi herri hauek ezik bertze guztiak duela urte bete baino biztanle gutiago baitzuten.



Azpilketako emakumeen afarian 53 lagun elkartu ziren

## Iruritako industrialderako lur eskariaren berri jakiteko deia luzatu du udalak

Iruritako Loizu inguruan (Irurita eta Lekaroz artean, tren estazioa zegoen lekuan) egin nahi den industrialderako lur eskariaren berri jakiteko, deialdia luzatu du Baztango udalak.

Eraikigarria den metro karratu bakoitzak 5.500 pezetako prezioa izanen du, ur-

banizazio lanak ere barnean direlarik.

Interesatuak idatziz eman beharko dute horren berri, Baztango udalaren Industri zinegotziaren eta Cederna-Garalur erakundearen bulegoan, martxoaren 15eko eguerdiko 1ak baino lehen, zenbat metro karratu behar dituzten aipatuz. Gisa ho-

netako sondeoa lehen ere egin zen erantzun ona bilduz enpresarien aldetik, baina denborara dexente pasatu denez, berriz egingen da.

Informazio gehiago nahi izanez gero aipatutako bulegora agertu astearte eta asteazkenetan, goizeko 9etatik 2etara, edo 580561 telefonora deitu.

### ttipi-flash

#### Ikasleen greba

Elizondo eta Lekarozko institutuko ikasleek greba egin zuten otsailaren 22an, selektibitatearen aurka egindako deialdiarekin bat eginez. Gero manifestazioa izan zen Elizondon.

#### Sendotza Iruritan

Otsailaren 19an Iruritako 30 gaztek sendotza edo konfirmazioa egin zuten. Bertan izan zen Fernando Sebastian Nafarroako apezpikua.

#### Euskara teknikaria

Baztango euskara teknikaria aukeratzeko azterketak martxoaren lehendabiziko astean egingen dira.

#### Zuhaitzaren Eguna

Iruritan giltzaurrak eta gaztainak landatu dituzte. Erantzun ona jasotzen ari da alkatearen deialdiak eta zuhaitzak landatu ondorengatik xingarrada izaten da. Baztan ikastolako haur eta gurasoek haritzak landatu zituzten.

**MENDI OSTATUA**

Santiago 25 - © 580313  
ELIZONDO

Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxozgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.  
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

**BERA**  
DESINFECCIONES

© 63 01 55  
BERA

**BAZTAN FUNERARIA**

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO  
Tfnoak: 580924-580814-580373

ARROPA DENDA



**CERVANTES HELVETIA SEGUROS**



Era guztietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia

**MENDIALDE Jatetxea**



Etxeko gasnak saltzen ditugu  
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan  
AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60



# Otsailaren 19ko Bertsularien Eguna paregabea izan zen

Ehun eta berrogeita hamar bertsozale lekuko zirela aritu ziren bertsolariak saio on eta umoretsu batean

MIXEL ETA JACQUELINE

Joan den igandean ginuen Saran Olhain ikastolak Euskal Kultur Erakundearekin batera antolatzen zuen Bertsularien Eguna. Eguraldi paregabea egin du eta jende multxo polita bildu da saiorako. Bazkarirat bertako 50 bat lagun jin da, Alkat eta Elizagoien bertsolariak ere parte hartzen zutelarik, baita Mixel Itzainak, egun hortako aurkezleak. Lastima da beharbada, holako otuntza batean jende gehiago ez aurkitzea bainan aurten aro ederra litaike menturaz hogenduna!

Horretaz gain ez dezakegu egun hau aipa arratsaldeko ekitaldia baztertuz. Antolatzaileen helburua saio



ñauterietan eskean ibili ziren gazte taldeak

Artxiboa

umoretsu eta on baten eskaintzea bazen, hau zinez hala izan da.

Alabainan 150 bat bertsozale zirela lekuko aritu dira sei bertsolariak, sutagar. Ez da dudarik lekua eta entzulegoa ezin hobe-

ak zirela eta gure bertsolariak gaitzeko trenpuan izanik giro bikaina sortu dutela. Bertsozale ohitu batzuen eritziaren arabera, hone-lako saioak guti izaiten dira eta oraindantik erraiten ahal dugu da-

torren urtean ere ohi-dura berrituko dela.

Bukatu aitzin, nahi ginuke halarik ere azpimarratu holako egun baten antolakuntza gastu handia dela eta ezin litaikeela zutik atxiki ez baginu Euskal

## Korrika-9

Martxoaren 17tik 26ra iragaitekoa dugu Korrika-9. Aurten goa Garazitik abiatuko da 17an arratseko Setan eta Senperetik pasatuko da 18an biak irian. Beraz, parte hartu nahi duten saratarrek beren burua ezagutarazten ahal dute Herriko Etxeko edantegitik. Honela hitzordua finka dezakegu eta menturaz ere garraioa antolatu.

Kultur erakundearen sustengua lortzen. Eskerrak beraz, ildo beretik ari diren euskaltzale eta kulturzale guzieri, gure urrats guziaz elkartzar dietsiko baitugu gure helburua.



# ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • 580562  
IRURITA - BAZTAN

## SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

*Egoki-ren banatzaile  
baimendua*



## HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin  
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19  
64130 SARA



ZURE  
ARGAZKIAK  
ORDU BATEAN  
EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIAK  
IA 100 URTE KALITATEA ETA  
PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO  
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE  
Tel. Fax. 45 08 25



## Hiru koadrila ibili dira etxez etxe eskean Iñauterietan

Otsailaren 26, 27 eta 28an ospatu ziren eta martxoaren lehen egunean, Hausterre eguna



Gazte koadrila igandean hasi zen eskean auzoz auzo

izan ziren. Gauerdialdera berriz, haundien desfilea. Asteartean, azken egunean, azken auzoetan eta herrian

eskea egin zen. Guzira hiru talde ibili dira eskean. Talde bakoitzak, beren akordiolaria izanez. Hauen bazkariak


eta afariak Indianoabaitan izan dira eta arratseko dantzaldiak Modestorekin.

Iñauteriak bukatu

eta asteazkenean, martxoak 1, hausterre eguna izan zen. Meza eta errauts hartzeak izan ziren.

## 20 bikotek parte hartu zuten Ansalas ostatuko mus txapelketan

Joxe eta Ebaristo izan ziren txapeldunak



Irabazleak umil eta modestuak agertu di-

re, ez baitzuten argazkirik atera nahi, gero

fama haundia hartuko zutelakoaren beldur.

### 'EGUBERRIAK' BUKATU DIRA

Ustez Eguberriak aspaldi pasatuak ziren, baina gauza arraro bat gertatzen zen gauero: bonbilazko bi izar haundi eta 'Zorionak' bat pizten ziren herriko plazan. Despistatuak ginen, eta ez ginakigun kalendarioari kasu egin edo plazako argi dizdiratsueri. Baina afera konpondu da, eta otsailaren 21an eken du dituzte bonbilak eta iñauteriak ospatzeko erran dakute (Ez zen gaizki izanen 'Eguberriak' iraun dutena iñauteriek irautea).

Urdazubi

ALIZIA OLAIZOLA

Iñauteriei eskolako haurrek eman zieten hasiera, mozorrotu eta desfilea eginez. Ikuskizun gehiago izan zituzten bazkaldu aitzin. Arratsalde ere bestarekin segitu zuten.

Igandean, gazteak eskean hasi ziren, Dantzarineako bentak eginez, denak mozorroturik, Modesto akordiolariaren konpainian. Astelehenean herriatik urrunago gelditzen diren auzoetan egin zen eskea eta arratsean haur mozorrodunen desfilea eta opariak

Zugarremuri

KORO ETA MARGARI

Otsailaren 17an, Ansalas ostatuak antolatatu zuen mus txapelketak arrakasta haundia lortu zuen, 20 bikote jokatzeko aritu zirelarik. Bi bikote neskez osatuta zeuden, baina lehenbiziko partidaren kontrako jokatu behar izan zuten. Bertzeak hirugarren postuan bukatu zuten.

1.: Joxe-Ebaristo (saski bat, telebista eta guzti). 2.: Iñigo-Mikel (bildotsa). 3.: Axun-Esther (edari loteak).

**EZKONTZAK**

**JAIOTZAK**

**HERIOTZAK**

**Amaia Bertiz Gaztelumendi**, Elizondokoa, otsailaren 5ean.  
**Xabier Sarratea Urrutia**, Zigakoa, otsailaren 15ean.  
**Mathias Latasa**, Sarakoa, otsailaren 15ean.  
**Ander Andueza Etxebeste**, Doneztebekoa, urtarrilaren 20an.  
**Jon Gago Almandoz**, Sunbillakoa, otsailaren 18an.

**Josefa Ibarra Hualde**, Legasakoa, otsailaren 15ean, 93 urte.  
**Maria Apezetxea Perurena**, Goizuetakoa, otsailaren 16an, 71 urte.  
**Anselmo Bereau Leiza**, Elizondon, otsailaren 6an, 85 urte.  
**Emiliana Lorenzo Leronés**, Lekarozkoa, otsailaren 8an, 70 urte.  
**Francisco Jorge Lekuberri Etxeberria**, Lekarozkoa, otsailaren 11an, 67 urte.  
**Fernando Etxenike Arburua**, Lekarozkoa, otsailaren 16an, 82 urte.  
**Simona Galardi Urtizberea**, Lesakan, urtarrilaren 29an, 86 urte.  
**Ramona Iparragirre Sorondo**, Lesakan, otsailaren 12an, 93 urte.  
**Gilberte Camino Urrutia**, Sarakoa, otsailaren 11an, 57 urte.  
**Praxedes Adot Bertiz**, Berakoa, otsailaren 11an, 92 urte.  
**Fermina Arburua Elizagoien**, Etxalarkoa Argentinan, 73 urte.


**LARRALDEA**



**SAGARDOTEGIA**

Asteartetik ortzirala 8etatik aitzinerat.  
 Larunbata eta besta egunetan zabalik.

© 45 21 21 • LEKAROZ



*Esker Onak  
 Urtemugak  
 Eskelak*

Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapak** eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora:

☎ 63 11 88



**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735

Irun ☎ (943) 622305



## BEHARREZKO TELEFONOAK



**SOS Nafarroa eta Urgentziak**.....088/061

**Osasun Zentruak**

Elizondo..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka ..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

**Nafarroako Ospitaleak**

Nafarroako Ospitalea .... 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

Erresidentzia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

**Gipuzkoako Ospitaleak**

Irungo ospitalea ..... 614600

Gipuzkoako ospitalea .... 460299

Erresidentzia ..... 453800

**Anbulatorioak**

Irun ..... 630264 / 621106

**Anbulantziak**

Oitz ..... 450242 / 450342

**DYA**

Lesaka

(Larrialdiak) ..... (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) ..... 171717

**FUNERARIA**

Doneztebe ..... 637404

Elizondo ..... 580924

Lesaka ..... 637404

**Suhiltzaileak**

Oronoiz-Mugairi ..... 592255

**Garraioak**

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzarar ..... 515018

**Aberiak:**

Iberduero ..... 450335 / 450336

## Nafarroako bertsolari txapelketa igande honetan hasiko da

Finala Leitzan burutuko da apirilaren 2an

Igande honetan, martxoak 5, arratsaldeko 4etatik aitzinera Alduden eginen den lehen kanporaketarekin hasiera emanen zaio aurtengo Nafarroako bertsolari txapelketari. Bertan, Mixel Aire 'Xalbador', Ernest Alkat, Fermin Mihura, Jean Pierre Mendiburu, Manolo Arozena, Xabier Silveira, Amaia Telletxea eta Xabier Legarreta arituko dira.

Hurrengo igandean, martxoak 12, Donezteben izanen da saioa, arratsaldeko 5etan. Bittor Elizagoien txapeldunarekin batera, Jose Fermin Argiñarena, Jesus Arzallus, Jean Louis Harinordoki 'Laka', Iñigo Olaetxea, Josema Leitza, Estitxu Arozena eta Estitxu Fernandez bertsolariak kantatuko dute.

### BI SAIO, FINALAURREA ETA LEITZAN FINALA

Bi saio hauetan lehendabiziko bi postuetan gelditzen direnak Leitza apirilaren 2an arratsaldeko 5etan burutuko den finalerako



Joan den urtean Bittor Elizagoienek irabazitako txapela burutzen lehiatuko dira hamasei bertsolariak

Arg.: Karmele

txartela eskuratua izanen dute. Saiotan hirugarren postutik seigarrenera gelditzen diren zortzi bertsolariak, berriz, aukera berri bat izanen dute Barañainen ospatuko den finalurreko saioan. Puntuazio onena lortzen duten lau bertsolariak, aurrez sailkatutako bertze lauekin osatuko dute Leitza finala.

Saio guzietan hama bina bertso kantatu behariko ditu bertsolari bakoitzak, finalean ezik,

bertan hamalau kantatuko baitira. Saio bakoitzean puntuaketa onena eskuratzen duenak, herriko garaikurra izanen du.

### ZORTZI EPAILE

Hamasei bertsolarien lana epaitzen zortzi lagun izanen dira. Aspaldiko urteetako sei epaileei, Patxi Larretxea arantzatarra eta Jon Abril beratarra gehituko zaizkie. Idazkari lana azkenik, Mikel Altuarte arizkundarrek beteko du.

### Jabier Rozas, Bertiz Partzuergo Turistikoko gerentek dimititua

Azken urteotan Iruñeko ACIS izan da Bertizko Partzuergo Turistikoko gerentzia eraman duen enpresa. 1994an eramandako gestioak, halere, Partzuergoa osatzen duten zenbait udal eta Elkarteren haserrea sortu du, eta ondorioz, Javier Rozasen dimisioa.




## BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak



LESAKA

# Amaiurrek ezin izan zuten txapela mantendu 600 kilotako Euskadiko txapelketan

Lesakako Beti Gazteko sokatiralariak meritu haundiko hirugarren postua eskuratu zuten bitartean, baztandarrak azkenak izan ziren Gasteizko finalean

Euskadiko goma gaineko sokatira txapelketaren finalak jokatu ziren joan den otsailaren 19an Gasteizko Mendizorrotza polikiroldegian.

Emakumeak eta gizonezkoak aritu ziren kategoria ezberdinetan, baina gure eskualdeko tiralariei dagokien kategoria bakar batean paratuak zeuden begiak, 600 kilotako gizonezkoetan, alegia.

Bertan, orain arteko txapelduna zen Amaiur eta Lesakako Beti Gazte taldea aritu ziren. Baztandarrek ez zuten txapela mantentzerik izan. Kanporaketetan itxura ona eman bazuten ere finalean pattal xamar aritu ziren eta azken postuan gelditu ziren. Lesakako Beti



Amaiurko taldeak ez zuten suerterik izan Gasteizko finalean eta seigarren postuan sailkatu zen

Argazkia: MENA

Gazte berriz, itxuroso ibili zen finalean eta hirugarren postuan bukatu zuen. Itxaropenez beterik joan ziren lesakarrak, 560 kilotan Abadiñon egindako la-

na ikusi ondotik. Aitzinetik ordea, aurtengo txapelketan areririk izan ez duten Laukizko Gaztedi eta Azpeitiko Urrestilla taldeak klasifikatu ziren.

Laugarren postua Torrekolanda taldearentzat eta bortzgarrena Barrundiarentzat.

Gaztedik jokoan zeuden sei txapeletatik bortz irabazi zituen.

*ttipi-flash*

♦ **Antton Maiz**

43 urteko Arantzako pilotariak, ongi merezitako omenaldia jasoko du martxoaren 4an, 20 urtez profesional bezala jokatu ondotik. Pilota ere utzi eginen du laister eskuz binakako txapel gehien (bortz) irabazi eta zazpitan parte hartu duen pilotari handi honek.

♦ **Mendi txirrindularitza**

Juan Karlos Garro beratarrak Atarrabiako proba irabazi zuen eta orain estatuko selekzioarekin koncentratua dago.

## Berako VI. mendi bizikleta ibilaldian 154 txirrindularik parte hartu zuen

Otsailaren 19an burutu zen Beran Gure Txokoa elkarteak, Berako Herriko Etxearen, Bortzirietako DYA eta Nafarroako Gobernuren laguntzaz antolatutako seigarren mendi bizikleta ibilaldia.

Eguraldi eguzkituak lagunduta 154 lagun bildu ziren Iamoteneako irteeran, bertze urteetan baino zerbait guttiago. Jeitsiera hau normala da Alberto Retegi, antolatzaileetarik baten erranetan "gero eta gehiago baitira gisa honetako pro-

ba". Txirrindularien jatorriari dagokionez, gehienak Bera eta inguruko herrietakoak baziren ere, Iparraldetik eta Gipuzkoako zenbait herrietatik agertu ziren. Horietatik gehienak 28 kilometro zituen ibilaldi luzea egin zuten eta hogeitxirrindularik egin zuten 18 milometroko ibilbide laburra. Proba hau lehiagarria ez denez, antolatzaileek ez zuten denborarik hartu. Hori bai, paseoa bukatuta 48 sari zozketatu ziren helmugan,

hameketakoarekin batera.

**DENBORALDI HASIERA JUBENILETAN**

Bertzalde, errepideko txirrindularitza denboraldia igande honetan hasi da jubencil mailan. Eskualdeko txirrindulariak, 'CSI Transformados' enpresaren babesarekin duen Urtxintxa taldean arituko dira hirugarren urtez. Inguru honetan burutuko den lehenbiziko proba Lesakan izanen da, martxoaren 11n.



# Retegi eta Errandoneak eskuz binakako hirugarren txapela bururatu zuten

Eratsundarrak ez zuen kontrariorik izan aitzineko koadroetan eta Alkaiagakoak ongi eutsi zion Zezeagaren pilotakadei

Julian Retegi eratsundarrak eta Inaxio Errandonea alkaiagarrrak elkarrekin lortu-tako eskuz binakako hirugarren txapela etxeratu zuten otsailaren 19an. Anoetan jokatu-tako finalean Unanue eta Zezeagari 22-17 irabazi ondotik.

Retegik bere mailutasuna erakutsi zuen partidu osoan zehar eta aitzineko koadroetan Unanue aise dominatu zuen. Berrogei urtetan pilotari hagitz konpletoa eta seguraski, historian zehar izan den pilotaririk onena dela erakutsi zuen.

Errandonea ere ederki aritu zen gibelko aldean. Zezeagari ez zion dominatzen utzi eta honela, Unanuek zailagoa izan zuen jokoa sartzea.

Hasieran, halere, ai-



Retegi eta Errandonea pozik txapela jantzi ondotik

Argazkia: EGIN

tzetatik ibili ziren gipuzkoarrak (0-4) eta 10-12 irabazten egon ziren. Ondotik, bikote

nafarraren erakustaldia etorri zen.

Errandoneak profesionaletan eskuratu di-

tuen hiru txapelak Retegirekin batera lortu ditu. Aurten gainera, banakako bi finalak

jokatu ditu. Retegi IIak berriz, lau aldiz izan da txapeldun binaka eta hameka aldiz banaka.

## ATLETISMOA

### Lesakako Herri Laisterketaren hirugarren edizioa apirilaren 9an burutuko da

Lesakako Batzoki elkarteak, Herriko Etxearen laguntzaz eta Caja Ruralen babesaz antolatutako Herri Laisterketaren hirugarren edizioa apirilaren 9an burutuko da. Bertan edozein laisterkalarik parte har dezake, izen ematea dohain izanen da eta partehartzaileei kamiseta bana emanen zaie. Proba goizeko 10etan hasiko da, pre-benjamin mailako laisterkaldiarekin eta

12,30ak aldera burutuko den proba nagusiarekin bukatuko da.

Ttikienek 500 metroko zirkuitoan barna ibiliko dira eta 500 metro eta bi kilometro arteko korrikaldiak egingen dituzte. Kadete mailatik aitzinera berriaz, 2 kilometro izanen dituen zirkuitoan ibiliko dira, itzuli kopuru ezberdinak egingez. Emakumezkoek (junior, senior eta be-teranek) sei kilometro

eginen dituzte eta maila bereko gizonezkoek zortzi. Kadete mailan, neskek bi kilometro eta mutilek 4 egingen dituzte.

Proba honi buruzko informazioa jasotzeko edo izena emateko 627522 (Julian) edo 637059 (Jesus Mari Calvo) telefonoetara deitu behar da. Egun berean ere, proba bakoitza hasi baino ordu erdi lehenago arte apuntatzen ahal da.

## Hamabostaldiko Jokaldiak



**Retegi-Errandonea** pilotariak.

Eratsundarrak 40 urtetan oraindik jaun eta jabe dela erakutsi zuen joan den asteko finalean. Alkaiagakoak berriz, denboraldiko hiru final nagusietan aritu da eta azkenean bat irabaztea lortu du. Zorionak bie.



**Amaiurko** sokatira taldea finalean.

Aitzineko alean, Amaiurrek 600 kilotan egiten ari zen lan bikaina aipatzen baguen ere (tiraldi bakoitza bat ere ez zuten galdu Elizondoko kantuta eta azkenean bat irabaztea lortu du. Zorionak sailkatu ziren.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BERTSOAK

### LESAKA

► **Martxoaren 10ean** gaueko 9etan, Koxkonta sagardotegian bertso afaria: Peñagarikano, Amuriza, Iturriaga eta Estitxu Arozena. Sarrera: 2.500 pzta. Korrika-9aren ekitaldien barnean.

### DONEZTEBE

► **Martxoaren 10an** gaueko 9etan, Ameztia Jatexean bertso afaria: Lizaso eta Egañarekin. Txartelak hartzeko azken eguna martxoaren 5a.

### ORNOZ

► **Martxoaren 4an** gaueko 9etan, Pierresenea Jatexean bertso afaria: Lizaso eta Egañarekin. Txartelak hartzeko azken eguna martxoaren 2an.

## KONTZERTUAK

### GOIZUETA


► **Martxoaren 4an** gaueko 11,30etan 'Trabuko' musika taldea. (Korrika-9)

### ERRATZU

► **Martxoaren 11n** gaueko 11etan, frontoian kontzertua: Baldin Bada, Etsaiak, Patagonia, Beltzez. Sarrerak aurrez 600 pzta; egun berean 800. (Korrika-9)

# AGENDA PRAKTIKOA

## ERREZETA



## Giltzaur eta txokolate tarta

### Osagaiak 6/8 lagun

- 100 gr. gurin • 100 gr. azukre
- 100 gr. Fondant txokolatea • 25 gr. irin • 150 gr. giltzaur, xurritua eta xehetua •

**Estaltzeko:** Dezilitro bat esnegain likidoa • 100 gr.

**Fondant txokolatea •**

**Betetzeko:** 250 gr. esnegain montatua

### Prestatzeko manera

Batidorarekin gurin bezartua irabiatu edo bati-tu, apar aunitz ateri arte. Azukrea gehitzen zaio; irabiatzen segitu eta arraultze baten gorringoa sartu. 'Baño Marian' txokolatea urtu eta guzti hau, lehengo gurinari gehitzen zaio. Irina eta giltzaur xehetua nahasten dira eta



Idoia ETXEBERRIA  
Sukaldaritza ikaslea  
•AMAIUR•

orain, dena elkartu. Azkenean zuringoak goratzen dira, eta berri dena nahasi. Gurineztatutako molde batera bota eta labean sartu 180ºtan 55 minutuz. Egin denean, erditik moztu eta bete. Akitzeko, dena apaindu.

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 8.200 pzta.
- **Zerri gizona** (95-100): 175 pzta/kilo
- **Zerramak:** 120-125 pzta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pzta./kg. Kanal  
Extra ..... 610  
1.koa ..... 590  
2.koa ..... 560

- **Urruxak:** Pzta./kg. Kanal  
Extra ..... 620  
1.koa ..... 600  
2.koa ..... 570  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):  
**Nabarrak:** urruxak 23.000 eta idixkoak 40.000 Pzta.
- **Mestizoak:** urruxak 42.000 eta idixkoak 55.000 Pzta.
- **Behi zaharrak:**  
Behi nabar gizona: 420 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 490 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA  
MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- **Bertako sagarrondoa** 950.
- **Udareondoa** 950 pzta.
- **Gereziondoa** 1.050 pzta.
- **Aranondoa** 1.050 pzta.
- **Muxika** 870 pzta.



### ❖ BARAZKIAK ❖

- **Piper txorizero** zientoa 800.
- **Piper morro** zientoa 800.
- **Piperminak** zientoa 600.



## ZUBIRIA MINDEGIAK

- **Elxeak apaintzeko landareak**
- **Baso landareak**
- **Bertako frutondoak**

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)

Faxa: 948-581274

## ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta  
gosariak

ITUREN

Tfnoa: 45 04 91

### Nafarroan 1995eko P.A.C. Azalaren Aitorpenak



**Belar soro azalaren aitorpena egiteko epea ekainaren 30a bitarte zabalik mantenduko da**

- DNI edo NIFaren fotokopia.
- Katastro (Rustica) orriaren fotokopiak, norberaren lur sailarenak nahiz errentan emanak daudenenak.
- 1994ari dagokion PAC Aitorpena (egin zuenak).
- Herri lurak erabiltzeko Herriko Etxeak emandako baimenaren egiaztagiri edo zertifikatua, horrelakorik

baldin badu.

- Aitzineko urtetan deklaratu gabeko lur sail berriak aitortuz gero, errentaren kontratua edo lur sail horien erosketaren justifikantea.
- Banku edo Aurrezki kutxako kontu zenbakiaren ziurtagiria.
- Esnea produzitzen duen baserriarrak: Esne kuota. Datu guzti hauekin, Nekazal Ganbararen edo Nafarroako Gobernuaren abeltzain edo nekazal sailtako bulegoan aurkeztu beharko da, 'PAC Azalera-95' aitorpena osatu ahal izateko. Zenbait aurrezki kutxa eta bankutan ere egiten ahal da aitorpen hau.

*Dentsitate faktorea, hau da, hektareako abere kopurua, kalkulatzea nahitaezkoa da abeltzarako prima ezberdinak eskatzerako orduan*

MIGUEL OLLAKARIZKETA  
NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

## ZINEA

### DONEZTEBE

- ▶ **Martxoak 4-5.** 'Historias de la puta mili'.
- ▶ **Martxoak 11-12.** 'En la linea de fuego'.

### LEITZA

- ▶ **Otsailak 17.19.** 'El especialista'.
- ▶ **Otsailak 19.** 'Las aventuras de Huckleberry Finn'.

## EMANALDIK

### LESAKA

- ▶ **Martxoaren 9an.** Zetan, Matxinbelltzean Juan Kruz Igera-bideren poesia emanaldia.

## GUARDIAKO BOTIKAK

- ▶ **Otsailaren 27tik martxoaren 5ra** Arantza, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.
- ▶ **Martxoaren 6tik 12ra** Igantzi, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.
- ▶ **Martxoaren 13tik 19ra** Lesaka, Nabarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

# ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

## LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

## IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitorpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ☎

## ETXEBIZITZAK

**LEGASA.** 90 m<sup>2</sup>ko pisu moleztatua salgai, tximinia eta kalefakzioarekin. 45 m<sup>2</sup>ko ganbara eta beheko solairuan 14 m<sup>2</sup>ko trasteroa. ☎ 306502 (Lurdes).

**LEGASA.** 95 m<sup>2</sup>ko pisu moleztatua salgai, haritz eta gartzainezko zurajea. ☎ 306502 (Lurdes).

**BAZTAN-BIDASOA** aldean borda edo baserria erosten dut. ☎ 306502.

**ELIZONDO.** Pisua alokatzetan dut. Hilabeteko 35.000 pezetatan. ☎ 306502.

**LEITZA.** 100 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Lau logela, jangela, sukaldea eta bainua. ☎ 306502.

**LEGASA.** Etxea salgai bere 200 m<sup>2</sup>ko baratzearekin. ☎ 450652.

**LESAKA.** 100 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. ☎ 637306 (arratsetan).

## DENETARIK

**Kartelak, afitxak, Bisita txartelak, Talonarioak...** egiten ditugu. Merke eta az-

kar. ☎ 631188. Bulego orduetan.

**Haritz amerikano eta gartzain plantak** salgai, baita bertako artoa eta eguridorra ere. ☎ 450888 (eguerdi eta arratsetan).

**Kontsola** salgai, Megadrive E markakoa eta MegaCD zazpi jokuekin. Gutti erabilia. 45.000 pezetatan. ☎ 510180.

**Intxaur landareak** salgai. ☎ 510227.

**Estudio amueblatua** eta eguzkitsua salgai, hondartza ondoan, Torrevieja aldean. 2.500.000 pezeta. Partikularra. ☎ 631339.

**Soro edo belagi** bat, 10.000 m<sup>2</sup> ingurukoa alkitatuko nuke. ☎ (943) 211979.

**1.000 m<sup>2</sup>ko** lur eremua salgai Igantzin, zonalde erai-kigarrian. ☎ 637187.

**Espositorea** salgai. Kanpoko aldean jartzekoa da, metalezkoa eta akristalatua. 42 m<sup>2</sup>ko. **San Miguel Tailerra.** ☎ 450711.

## IBILGAILUAK

**Yamaha 600 Diversion,** NA-AK matrikuladuna eta 1994. urteko **motoa** eta maletak salgai. ☎ 220811.

**Opel Frontera** salgai, oso egoera onean, NA-AH matrikuladuna. ☎ (943) 216852-216093 (goizeko 8etatik 1etara). Erantzungailua, arratsaldez eta gauez.

## AZIENDAK

**Grifon** arrazako bi zakurkume, hiru hilabetekoak, salgai. ☎ 627608.

**Bracco aleman** arrazako zakurra salgai. Uso edo oilagor ehizirako espeziala da. 15.000 pzta. ☎ 306502.

**Artzai zakurkumeak** hila-bete batekoak salgai. Oso politak. ☎ 504492.

**Larre behia** bere umearekin salgai. ☎ 510277.

**Samoiedo** arrazako sei zakurkume salgai. ☎ 637896.



## LANA

**Emakumea** haurrak zaintzeko prest. ☎ 450010 (9etatik 11etara).

**Irakasle tituluduna eta EGArekin** urte osoan Beran zein Lesakan klase partikularrik emateko prest. Euskera, OHO, frantsesa, REM... ☎ 630182-637839.

**Neska** bat externa moduan garbiketa lanak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ 637734-627515 (Lurdes).

**Neska** batekin lan eginen luke arratsaldetan. ☎ 627587 (Kontxita, arratsaldetan).

**Gitarra elektrika** eta baxu klaseak. ☎ 630217.

## AGURRAK

**Igantzi**ko J.A.E.rentzat: zure erantzuna oraindik espero dut. Badakizu zertaz ari naizen eta ez dut etsiko.

**Lurdes A.ren** partez, eskerrik asko Unai eta Javierreri beraien oparia egiteagatik.

**Arantzako Liliri:** badakit niaz zoraturik zaudela, bainan niri zure laguna gusatzzen zait. Ez gaizki hartu. Zure ametseko gizona.

**Lesakako Amaia T.:** Gustora zurekin ibiliko nintzateke, baina ikusten zaitut oraintxe mutil batekin, gero bestekin, eta ez dakit zer egin. Baztango baten partez.

**Arantzako Edurne I.:** Badakit nere ondotik zabilzala eta ni ez naiz konaturatu. Orain nahi nuke zurekin hasi. Doneztebeko A.

**Aresoko Cristina** Saizarreri zorionak (martxoak 7) eta muxu haundi bat. Juana Mari, Uxue eta Zuriñe.


**Igantzi**ko Izaskun Tapiari: zorionak zure urtebetetze egunean (14 urte). Zure klaseko lagunaren partez, ongi pasa eguna!

# 40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,  
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,  
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegia bat  
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,  
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,  
aseguro etxe bat, ileapaindegia mixto bat, drogeria bat,  
bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,  
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak,  
etxe saltzaile bat...**

**Denetarik gauzarik hoberenak.  
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.**

Centro Comercial



**LUIS  
MARIANO**  
Irun

# EGB BUKATUTA ZER?

## ORONOZKO

S  
A  
N  
M  
A  
R  
T  
I  
N



E  
S  
K  
O  
L  
A

**20 URTE ATEAK IDEKI ZITUELA**



**HOSTELERIA**

**FORESTALA  
AGROPEKUARIA**



**MEKANIKA  
SOLDADURA**

Hasi: **14 urtetan**. Zona honetan, eskola honek bakarrik "OFIZIOA" EGB egin ondoren (Bi urte)

**Praktikak:** Lantegi edo Enpresatan

**Gure zonan, ez ote dira gehiago bultzatu behar ofizio hauek?**

**Jantokia - Erresidentzia Tfnoa eta Faxe: 59 20 06**

# Marka eta modelo guziak



**RENAULT**

**ESKU-LANA DOHAINIK**

**Olio aldaketa**

**Freno-pastillak aldatzea**

**Amortiguadoreak aldatzea**

**PEDRO GARMENDIA, S.A.**  
**RENAULT • ELIZONDO**

Frantziarako karretera 57. km. - Tfnoa.: 580431/6

Baztan Bidasoalderako Zerbitzua

## **SAMPI ARAGON**

DONEZTEBE • ☎ 45 03 54



- Hiru eta bortz ate.
- Lapurretaren aurkako inmovilizadore elektronikoa.
- Bere kategorian zabalena.
- Airbag.
- ABS.
- 'Dirección Asistida'
- Haize egokitua...



**Polo berria**  
**Volkswagen-en kontzentratua**